



KALITATE EGITASMO INTEGRATUAN (KEI) OINARRITUTAKO AUTOEBALUAZIO GIDA



Kalitate Egitasmo Integratua

PROTOKOLOA

1. Galdesortaren bakarkako erantzuna

Ondoren aurkezten den galdesorta ataletan sistematizaturik dago. Kalitatearen barruan zazpi eremu bereizi dira eta eremu bakoitzean estandarrek edo kalitate irizpideak zehaztu dira. Galdesortako atalak irizpide horiei dagozkie. Aldi berean, estandar bakoitza adierazle multzo batekin batera aurkezten da, adierazle horiek ikastetxeko hezkuntzaren kalitatea definitzen duten arrakasta faktore kritikoak zehazten dituzte. Ebaluazio taldeko kide bakoitzak galdesorta hau bakarka eta gero taldean erantzun beharko du autodiagnosi saioaren aurretik, jarraian azaltzen diren argibideak kontuan izanik.

2. Puntuaziorako argibideak

Item moduan aurkeztutako adierazle bakoitzean bi erantzun-aukera daude, ikastetxean zenbateraino betetzen den Otik lera baloratzeko. Erantzun-aukera horietatik bat hautatu beharko duzu eta dagokion zenbakia aldameneko gelaxkan idatzi. Hona hemen erantzuteko aukerak azalduta:

0 Adierazlea ez da bere **osotasunean** betetzen ikastetxearen bizitzan .

1 Adierazlea bere **osotasunean** betetzen da ikastetxearen bizitzan .

3. Talde puntuazioetarako argibideak

Behin galdesortak bakarka erantzunda, emaitzak ebaluazio-taldearen aurrean aurkeztu behar dira. Ebaluazio-taldea bost kidek baino gehiagok osotzen badute, hiru, lau edo bost laguneko taldeetan banatuko da.

Talde-puntuazioaren helburua guztiek edo behintzat gehienek onartutako emaitzak negoziatzea da. Negoziazioa errazteko, ondorengo urratsak jarraituko dira:

1. Bakarkako puntuazioak gehitu, eta batuketa horren emaitza, bakarka ebaluatu duten partaide kopuruaren artean zatitzen da, taldeko batez besteko puntuazioa *emaitza globala* zutabearen jarriz.
2. Ebaluazio-taldearen batez bestekoa, 1 baldin bada, ez da negoziatuko.
3. Baina ebaluazio-taldearen batez bestekoa, $\geq 0,75$ ez baldin bada, negoziatu egin beharko da, *emaitza adostua* zutabearen, 1 edo 0, puntuazioa erabiliz. Adostasuna lortzeko ongi arrazoitu eta argudiatu beharko da, azken finean, ikastetxean benetan gertatzen dena antzemateko. Erakusgarriekin edo ebidentziekin jokatu beharko da zorrotz.

Adibideak:

- Taldea bost lagunek osatzen dute eta adierazle bati emandako bakarkako puntuazioak ondorengoak izan dira: 1-1-1-1-1. Taldearen batez bestekoa, hortaz, honako hau da: $5:5 = 1$. Bataz-bestekoa, 1 izan denez, ez da negoziatu behar.
- Taldeko kideek aldiz, ondorengo puntuazio hauek eman dituzte: 1-0-1-1-0. Taldearen batez-bestekoa, beraz, hau izan da: $3:5=0,6$. Garbi dago, beraz emaitza negoziatu egin behar dela, *emaitza adostua* zutabearen 0 edo 1 puntuazioak jarri behar direlarik. Eta beti ere, aurrez esan bezala adierazleekin zorrotz jokatuz.

4. Arlo sendoak eta hobetu beharreko arloak zehaztea

Autoebaluzioa egin ondoren, arlo sendoak eta ahulak jasoko dira taula batean. Arlo sendoak, **1** puntuazioa jaso duten adierazleak izango dira. Arlo ahulak aldiz, **0** puntuazioa jaso dutenak.

5. Hobetu beharreko arloetan lehentasunak jartzea

Galdesortaren bidezko diagnosia amaitutakoan, hobetu beharreko arlo kopuru handia badin bada, guztiei aldi berean erantzutea ezinezkoa izango litzatekeenez, lehentasunak jarri beharko dira, taldean erabakiak hartzeko talde-dinamikaren bat erabiliz. Metaplana, Elur Bola, Diamantea etab. bezalako teknikak lagungarriak izan daitezke.

Arloak lehenesten hasi aurretik, garrantzitsua da arlo batzuk beste batzuen aurretik hautatzeko orduan, denok aintzat hartu beharreko irizpideren bat finkatzea. Esate baterako, ondorengo hauek izan litezke lehenesteko irizpideak: garrantzia, beharrezana edo premia larria. Eginkizunari eta ikuspenari buruzko dokumentuetan oinarritutako arrazoibideak ere erabil litezke.

I. EREMUA

ERAKUNDEAREN PLANTEAMENDUAK

Eremu hau ikastetxeko kultura formalari dagokio. Etorkizuneko erakunde batean aintzat hartu beharreko lau estandar aztertzen ditu: **Kalitatearen definizioa, Eginkizuna, Ikuspena eta Baloreak**. Aldi berean, ikastetxe batean arrakasta faktore suposatzen duten ondorengo beste lau estandar hauek ere: **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Urteko Plangintza Orokorra eta Plan Estrategikoa**.

1.1. KALITATEAREN KONPROMEZUA estandarra

Ikastetxean bada **pertsonalak adostutako** kalitate kontzeptuaren definizioa jasotzen duen **dokumentu** ofizial **esplizitua**. **Erreferentzi egonkorra** da erakundearen jardunbidean eta sistematikoki **eguneratzen** da.

- | | |
|---|--|
| 1.1.1. Ikastetxean bada Kalitate kontzeptuaren definizioa jasotzen duen dokumentu ofizial esplizitua. | |
| 1.1.2. Kalitate kontzeptuaren definizioa pertsonalaren %75ak, gutxienez, adostu du. | |
| 1.1.3. Plan Estrategikoak eta Urteko Plangintza Orokorrak, Kalitatearen idei gakoak jasotzen dituzte euren helburuetan. | |
| 1.1.4. Bost urtero, Kalitate kontzeptuaren eguneratze prozesua burutzen da. | |

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
1.1.1.							
1.1.2.							
1.1.3.							
1.1.4.							

1.2. EGINKIZUNA estandarra.

Ikastetxean bada **pertsonalak adostutako** Eginkizunaren definizioa jasotzen duen **dokumentu** ofizial **esplizitua**. **Erreferentzi egonkorra** da erakundearen jardunbidean eta sistematikoki **eguneratzen** da.

- | | |
|--|--|
| 1.2.1. Ikastetxean bada Eginkizuna definitzen duen dokumentu ofizial esplizitua eta berau dagokien organoetan aprobatu da. | |
| 1.2.2. Eginkizunaren definizioa pertsonalaren % 75ak, gutxienez, adostu du | |
| 1.2.3. Plan Estrategikoak eta Urteko Plangintza Orokorrak, Eginkizunaren idei gakoak jasotzen dituzte euren helburuetan. | |
| 1.2.4. Bost urtero, Eginkizunaren eguneratze prozesua burutzen da. | |

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
1.2.1.							
1.2.2.							
1.2.3.							
1.2.4.							

1.3. IKUSPENEA Estandarra.

Ikastetxean bada **pertsonalak adostutako** Ikuspenaren definizioa jasotzen duen **dokumentu ofizial esplizitua**. Dokumentu hori **Plan Estrategikoaren** definizioan zehazten da eta sistematikoki eguneratzen da.

- 1.3.1. Ikastetxean bada Ikuspena definitzen duen dokumentu ofizial esplizitua eta berau dagokien organoetan onartu da.
- 1.3.2. Ikuspenaren definizioa pertsonalaren % 75ak, gutxienez, adostu du.
- 1.3.3. Bost urtero, Ikuspenaren eguneratze prozesua burutzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaita globala	Emaita adostua
1.3.1.							
1.3.2.							
1.3.3.							

1.4. ERAKUNDE BALOREAK Estandarra.

Ikastetxean bada erakunde Balorerik garrantzitsuenak jasotzen duen **dokumentu ofizial esplizitua**. **Erreferentzi egonkorra** da erakundearen jardunbidean eta sistematikoki **eguneratzen** da.

- 1.4.1. Ikastetxean bada Erakunde Balorerik garrantzitsuenak adierazten dituen dokumentu esplizitua eta berauek dagozkien organoetan onartu dira.
- 1.4.2. Erakunde Baloreak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, Urteko Plangintza Orokorrean, Ikastetxearen Proiektu Curricularrean eta Ikasgelako Programazioetan islaturik agertzen dira.
- 1.4.3. Bost urtero, Erakunde Baloreen eguneratze prozesua burutzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaita globala	Emaita adostua
1.4.1.							
1.4.2.							
1.4.3.							

1.5. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA (IHP) Estandarra.

Zentroan bada Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua jasotzen duen **dokumentu ofizial esplizitua**. **Hezkuntza Komunitateak adostua**, proiektu horrek **erreferentzi egonkorra** suposatzen du erakundearen jardunbidean eta sistematikoki **eguneratzen** da.

- 1.5.1. Zentroan bada Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren berri ematen duen dokumentu ofizial esplizitua eta berau dagokien organoetan onartu da. IHPk ondoko atalak izango ditu gutxienez: *Testuinguruaren azterketa, Nortasun ezaugarriak (Historia, Baloreak eta Oinarri Psikopedagogiakoak), Erakunde xedeak, Jardunbide eta Gobernu Egitura.*
- 1.5.2. Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak hezkuntza komunitateak adostu du .
- 1.5.3. IHPren ildo nagusiak, Urteko Plangintza Orokorrean, Proiektu Curricularretan eta Ikasgelako Programazioetan islaturik agertzen dira.
- 1.5.4. Bost urtero, Hezkuntza Proiektuaren eguneratze prozesua burutzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaita globala	Emaita adostua
1.5.1.							
1.5.2.							
1.5.3.							
1.5.4.							

1.6. URTEKO PLANGINTZA OROKORRA (UPO) Estandarra.

Ikastetxean bada Urteko Plangintza Orokorra jasotzen duen **dokumentu** ofizial **esplizitua**. Erreferentzi **egonkorra** da erakundearen jardunbidean eta sistematikoki **ebaluatzen** da.

- 1.6.1. Ikastetxean bada Urteko Plangintza Orokorra jasotzen duen dokumentu ofizial esplizitua eta berau dagokien organoetan aprobatu da. Aipatu plangintzak ondoko atalak izango ditu gutxienez: *Helburuak, Ekintzak, Baliabideak, Arduradunak, Denbora, Ebaluazioa*.
- 1.6.2. Ikasgelako Programazioek UPOren ildo nagusiak islatzen dituzte.
- 1.6.3. UPOren betetze maila ezagutzeko, urtero ebaluazio prozesu bat burutzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaita globala	Emaita adostua
1.6.1.							
1.6.2.							
1.6.3.							

1.7. PLAN ESTRATEGIKOA Estandarra.

Ikastetxean bada Plan Estrategikoa jasotzen duen **dokumentu** ofizial **esplizitua**. Etorkizun ikuspenarekin koherentea da eta pertsonalaren artean adostua. Dokumentu hau urtero, Urteko Plangintza Orokorrean garatzen da eta sistematikoki **eguneratzen** da.

- 1.7.1. Ikastetxean bada hiru-bost urte bitarteko Plan estrategikoa jasotzen duen dokumentu ofizial esplizitua eta berau dagokien organoetan aprobatu da. Aipatu planak ondoko atalak izango ditu gutxienez: *Ildo estrategikoa, Diagnostikoa, Helburuak, Ekintza plana, Arduradunak, Lorpen adierazleak*.
- 1.7.2. Plan Estrategikoa pertsonalaren %75ak, gutxienez, adostu du.
- 1.7.3. Plan Estrategikoa koherentea da ikastetxearen etorkizun ikuspenarekin.
- 1.7.4. Urteko Plangintza Orokorrak, Plan Estrategikoaren ildo nagusiak jasotzen ditu .
- 1.7.5. Ikuskerarekin batera, hiru edo bost urtero, Plan Estrategikoaren eguneratze prozesua burutzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaita globala	Emaita adostua
1.7.1.							
1.7.2.							
1.7.3.							
1.7.4.							
1.7.5.							

2. EREMUA

ANTOLAKUNTZA EGITURAK

Bigarren eremu hau ikastetxearen jardunbideari dagokio, ikuspegi formaletik, **Klaustroa, Departamentuak/Irakas taldeak** edo **Zuzendaritza Taldea** bezalako antolakuntza egituretan zehazten dena. Egitura hauek koordinazio harremanak dituzte elkarren artean eta **proiektuen** bitartez kudeatzen dute euren lana.

2.1. ZUZENDARITZA TALDEAREN JARDUNBIDEA Estandarra

Bere barne eta kanpo helburu eta funtzioak ondo definiturik dituen **Zuzendaritza taldea** dago. Egitura horrek, **Zuzendaritza Proiektu** propio baten bitartez eta beste egiturekin **koordinatuz** kudeatzen du ikastetxea.

- 2.1.1. Ikastetxean Zuzendaritza Taldearen antolakuntza egitura existitzen da eta berau dagokion dokumentu instituzionalean jasota dago.
- 2.1.2. Zuzendaritza Taldeak bere Zuzendaritza Proiektu propioa du eta proiektu honek ondorengo atalak jasotzen ditu: *Testuinguruaren azterketa, Jardunbide ereduaren definizioa, Ekintza programa, Bideragarritasunaren azterketa, Ebaluazio plana, Diseinu operatiboa.*
- 2.1.3. Lau urtero edo ikastetxeak arautua duenaren arabera, Zuzendaritza Proiektuaren eguneratze prozesua burutzen da.
- 2.1.4. Zuzendaritza Taldeak urtero bere koordinazio plana definitzen du. Koordinazio planak, gutxienez ondoko atalak jaso behar ditu: *Koordinazio mailak, Koordinazio maila bakoitzeko helburuak eta ekintza plana, Koordinazio maila bakoitzeko lorpen adierazleak.*
- 2.1.5. Zuzendaritza Taldearen koordinazio plana urtero ebaluatzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaita globala	Emaita adostua
2.1.1.							
2.1.2.							
2.1.3.							
2.1.4.							
2.1.5.							

2.2. DEPARTAMENTUAK/IRAKAS TALDEEN JARDU BIDEA Estandarra.

Bere barne eta kanpo helburu eta funtzioak ondo definiturik dituzten **Departamentuak/Irakas taldeak** daude. Egitura horiek, **proiektu** propioen bitartez eta beste egiturekin **koordinatuz** kudeatzen dute euren lana.

- 2.2.1. Ikastetxean Departamentu/Irakas taldeen antolakuntza egitura existitzen da eta berau dagokien dokumentu instituzionalean jasota dago.
- 2.2.2. Departamentu/Irakas talde bakoitzak bere proiektu propioa du. Proiektuek, gutxienez, ondoko atalak izango dituzte: *Departamentu/irakas talde bakoitzaren Funtzioak, Helburuak, Ekintza plana eta Lorpen adierazleak.*
- 2.2.3. Departamentu/Irakas taldeen proiektuak urtero eguneratzen dira.
- 2.2.4. Departamentu/Irakas taldeek urtero euren koordinazio plana definitzen dute. Koordinazio planak, ondoko atalak jaso behar ditu gutxienez: *Koordinazio mailak, Koordinazio maila bakoitzeko helburuak, Ekintza plana eta Lorpen adierazleak.*
- 2.2.5. Departamentu/Irakas taldeen koordinazio planak urtero ebaluatzen dira.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
2.2.1.							
2.2.2.							
2.2.3.							
2.2.4.							
2.2.5.							

2.3. KLAUSTROAREN JARDUNBIDEA Estandarra.

Klaustroak bere **Urteko Ekintza Plana** definiturik du eta **eraginkortasun irizpideez** kudeatzen ditu bere bilerak.

- 2.3.1.** Klaustroak bere Urteko Ekintza Plana du. Plan honek, ondoko atalak izango ditu gutxienez: *Funtzioak, Ikasturteko helburuak, Ekintzak, Egutegia eta Lorpen adierazleak.*
- 2.3.2.** Klaustroaren Ekintza Plana urtero ebaluatzen da.
- 2.3.3.** Klaustroa aldizka biltzen da.
- 2.3.4.** Hiru urtero, Klaustroaren bileren eraginkortasuna ebaluatzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
2.3.1.							
2.3.2.							
2.3.3.							
2.3.4.							

3. EREMUA

HARREMAN ETA ELKARBIZITZA SISTEMA

Eremu hau, ikastetxean sortutako elkarbizitza eta harremanak arautzen dituen **Elkarbizitza Proiektuaren** definizioan eta garapenean kokatzen da. Aldi berean, ikastetxearen xedeak lortzeko eragin lagungarria duten **ikasgelako eta ikastetxeko giro** egokien bizitza ere aintzat hartzen du.

3.1. ELKARBIZITZA PROIEKTUA Estandarra.

Ikastetxean bada **Elkarbizitza Proiektua** jasotzen duen **dokumentu esplizitu** eta eguneratua. Hezkuntza Komunitatean **adostua**, proiektu horrek ikastetxean sortutako **harremanak** eta **elkarbizitza** arautzen ditu.

- | | | |
|---------------|--|--|
| 3.1.1. | Ikastetxean bada Elkarbizitza Proiektu propioa jasotzen duen dokumentua. Elkarbizitza Proiektuak, ondoko atalak izango ditu gutxienez: <i>Elkarbizitzaren definizioa bere harreman maila desberdinetan: ikasleak-ikasleak; ikasleak-irakasleak; ikasleak-gurasoak; gurasoak-irakasleak; irakasleak-irakasleak. Premien azterketa, Elkarbizitza hobetzeko neurriak eta trataera Curricularra.</i> | |
| 3.1.2. | Elkarbizitza Proiektua hezkuntza komunitatean adostu da. | |
| 3.1.3. | Bost urtero, Elkarbizitza Proiektuaren eguneratze prozesua burutzen da. | |

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa	Eraitza globala	Eraitza adostua
3.1.1.			
3.1.2.			
3.1.3.			

3.2. IKASTETXEKO GIROA Estandarra.

Irakasleen arteko konfiantza, kohesio soziala eta ikasleekin mantentzen dituzten harreman onak, ikastetxearen ezaugarriak dira.

- | | | |
|---------------|--|--|
| 3.2.1. | Langileriaren %75ak, gutxienez, euren artean errespetuzko giroa dagoela egiaztatzen dute. | |
| 3.2.2. | Langileriaren %75ak, gutxienez, euren artean konfiantzazko giroa dagoela egiaztatzen dute . | |
| 3.2.3. | Irakasleriaren %75ak, gutxienez, euren arteko laguntza dutela egiaztatzen dute. | |
| 3.2.4. | Ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, euren arteko harremanak pozgarriak eta jeneralizatuak direla egiaztatzen dute. | |

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa	Eraitza globala	Eraitza adostua
3.2.1.			
3.2.2.			
3.2.3.			
3.2.4.			

3.3. IKASGELAKO GIROA Estandarra.

Ikasgelan bada ikasketa jarrera egokia eragiten duen giroa.

- 3.3.1.** Ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, irakasleek ikasleen garapenez eta euren ongizate pertsonal eta sozialaz kezkatzen direla egiaztatzen dute.
- 3.3.2.** Ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, ikasleak ikasketetan era aktiboan inplikatzera bultzatzen direla egiaztatzen dute.
- 3.3.3.** Ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, ikasleek erabakiak har ditzaten eta beren portaeraren eta aprendizaiaren kontrola izan dezaten, sustatzen dela egiaztatzen dute.
- 3.3.4.** Ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, ikasleek giza eremuetako gaietan jarrera kritikoak gara ditzaten, sustatzen dela egiaztatzen dute.
- 3.3.5.** Ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, aniztasunaren trataerari arreta eskaintzen zaiela –ikasketa estilo, interesak eta lan erritmo desberdinen arabera, egiaztatzen dute.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
3.3.1.							
3.3.2.							
3.3.3.							
3.3.4.							
3.3.5.							

IV. EREMUA

TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA

Eremu hau, tutoretza, Tutoretza Ekintza Plana eta orientazio akademiko-profesionalari dagokio. **Tutoretza Ekintza Plana**, erreferentzi nagusi, **tutoretza** modalitate desberdinen bitartez garatu eta zehazten da: ikasleen tutoretzaren bitartez (bakarka zein taldeka), gurasoen tutoretzaren bitartez (bakarka zein taldeka) eta ikastetxeko profesional ezberdinekin egindako tutoretzaren bitartez. Era berean, ikastetxean bada **Orientazio Zerbitzua**, bere lana proiektu propioaren bitartez eta beste egitura eta organismoekin koordinatuz kudeatzen duena.

4.1. TUTORETZA EKINTZA PLANA (TEP) Estandarra.

Ikastetxean bada Tutoretza Ekintza Plana jasotzen duen **dokumentu esplizitua**, tutoreen artean **adostua** eta sistematikoki **eguneratzen** dena.

4.1.1. Ikastetxean bada Tutoretza Ekintza Plana jasotzen duen dokumentu esplizitua. Plan honek, ondoko atalak izango ditu gutxienez: *Tutoretza orokorraren definizioa. Hiru tutoretza espazioen definizioa: Irakasle Taldea eta Orientazio Zerbitzuaren ateko koordinazioa, Ikasleen Tutoretza (bakarka zein taldeka, eta Familien Tutoretza (bakarka zein taldeka). Tutoretzaren helburu orokorrak. Tutoretza espazio bakoitzeko helburu orokorrak: Irakasle Taldea eta Orientazio Zerbitzuaren ateko koordinazioa, Ikasleen Tutoretza (bakarka zein taldeka), eta Familien Tutoretza (bakarka zein taldeka). Tutoretza espazio desberdinetan finkatutako helburuak lortzeko Ekintza plana eta Ebaluazio irizpideak.*

4.1.2. TEPa tutoreen artean adostua izan da.

4.1.3. Hiru urtero, TEPa eguneratu egiten da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.1.1.							
4.1.2.							
4.1.3.							

4.2. ORIENTAZIO ZERBITZUAREN JARDUNBIDEA Estandarra

Proiektu propio eta **eguneratuaren** bitartez lan egiten duen Orientazio Zerbitzua **dago** ikastetxean. Familia zein ikasleei **zerbitzu eskuragarria** eskaintzearren, zerbitzuak **koordinazio** harremanak ditu ikastetxe **bertako** kolektibo edo talde desberdinekin eta baita **kanpoko** beste erakundeekin ere. Ondorioz, inplikatu guztiek zerbitzuarekin **satisfazio** maila onargarria erakusten dute.

- 4.2.1.** Ikastetxean Orientazio Zerbitzua dago eta berau dagokion dokumentu instituzionalean jasota dago
- 4.2.2.** Orientazio Zerbitzuak bere proiektu propioa du. Aipatu proiektuak ondoko atalak jasoko ditu gutxienez: *Zerbitzuaren funtzioak. Zerbitzuaren helburu orokorrak eta zehatzak, Zerbitzuaren ekintza plana eta Ebaluazio irizpideak*
- 4.2.3.** Orientazio Zerbitzuaren proiektua urtero eguneratzen da.
- 4.2.4.** Orientazio Zerbitzuak tutoreekin koordinazio bilerak antolatzen ditu.
- 4.2.5.** Orientazio Zerbitzuak irakasleekin koordinazio bilerak antolatzen ditu.
- 4.2.6.** Orientazio Zerbitzuak harremanak ditu kanpoko zerbitzuekin bere kudeaketaren bermerako.
- 4.2.7.** Orientazio Zerbitzua eskuragarria da ikasleentzat.
- 4.2.8.** Orientazio Zerbitzua eskuragarria da familientzat.

- 4.2.9. Ikasleria pozik dago Orientazio Zerbitzuaren jardunbidearekin.
- 4.2.10. Irakasleria pozik dago Orientazio Zerbitzuaren jardunbidearekin.
- 4.2.11. Tutoreak pozik daude Orientazio Zerbitzuaren jardunbidearekin.
- 4.2.13. Familiak pozik daude Orientazio Zerbitzuaren jardunbidearekin
- 4.2.14. Orientazio Zerbitzuko partaideek pozik daude osatzen duten egituraren jardunbidearekin

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.2.1.							
4.2.2.							
4.2.3.							
4.2.4.							
4.2.5.							
4.2.6.							
4.2.7.							
4.2.8.							
4.2.9.							
4.2.10.							
4.2.11.							
4.2.12.							
4.2.13.							

4.3. TUTORETZA EKINTZAREN GARAPENA Estandarra.

Tutoretza ekintza erakundearen **planteamenduetan** ezarritakoaren arabera **zehazten da**, inplikatu guztien **satisfazio** maila onargarriarekin.

- 4.3.1. Tutore bakoitzak bere tutoretza ekintza erakundearen planteamenduetan ezarritakoaren arabera garatzen du.
- 4.3.2. Ikasleriaren %60ak, gutxienez, pozik dagoela tutoretza ekintzarekin, egiaztatzen du.
- 4.3.3. Irakasleriaren %75ak, gutxienez, pozik dagoela tutoretza ekintzarekin, egiaztatzen du.
- 4.3.4. Tutoreen %75ak, gutxienez, pozik dagoela tutoretza ekintzarekin, egiaztatzen du.
- 4.3.5. Familien %50ak, gutxienez, pozik dagoela tutoretza ekintzarekin, egiaztatzen du.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
4.3.1.							
4.3.2.							
4.3.3.							
4.3.4.							
4.3.5.							

V. EREMUA

CURRICULUMA

Eremu honek, **Ikastetxearen Proiektu Curricularraren (IPC) garapena** eta irakasleriaren **garapen profesionala** azpimarratzen ditu, ikasleengan **ikasketa emaitza positiboak** eta inplikatu guztien **satisfazioa** eragiten duten faktore bezala.

5.1. IKASTETXEAREN PROIEKTU CURRICULARRAREN (IPC) GARAPENA Estandarra.

Ikastetxeak, bere Proiektu Curricularrean **etapa/ziklo** bakoitzerako **helburuak, edukiak, irizpide metodologikoak** eta **ebaluazio irizpideak** definituz, programatzen du irakaskuntza prozesua. Aldi berean, definizio hori, Ikasgelako Programazioetan islatzen da.

5.1.1.	Ikastetxeak etapa/ziklo bakoitzerako gutxieneko helburuak definiturik ditu bere Proiektu Curricularrean klausuroak adostuta.	
5.1.2.	Ikasgelako Programazioek etapa/zikloko gutxieneko helburuak islatzen dituzte.	
5.1.3.	Ikastetxeak etapa/ziklo bakoitzerako gutxieneko edukiak definiturik ditu bere Proiektu Curricularrean klausuroak adostuta.	
5.1.4.	Ikasgelako Programazioek etapa/zikloko gutxieneko edukiak islatzen dituzte.	
5.1.5.	Ikastetxeak etapa/ziklo bakoitzerako irizpide metodologikoak definiturik ditu bere Proiektu Curricularrean klausuroak adostuta.	
5.1.6.	Ikasgelako Programazioek etapa/zikloko irizpide metodologikoak islatzen dituzte.	
5.1.7.	Ikastetxeak etapa/ziklo bakoitzerako ebaluazio irizpideak definiturik ditu bere Proiektu Curricularrean klausuroak adostuta.	
5.1.8.	Ikasgelako Programazioek etapa/zikloko ebaluazio irizpideak islatzen dituzte.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
5.1.1.							
5.1.2.							
5.1.3.							
5.1.4.							
5.1.5.							
5.1.6.							
5.1.7.							
5.1.8.							

5.2. IRAKASLERIAREN GARAPEN PROFESIOLA Estandarra.

Irakasleriak, bere garapen profesionala bultzatzen duten **prestakuntza, eguneratze** eta **ebaluazio ekintzak** burutzen ditu.

5.2.1.	Ikastetxeak urtero eskaintzen dizkio irakasleriari prestakuntza eta eguneratze profesionalari lotutako jarduerak.	
5.2.2.	Bosturteko irakasleriaren inplikazioa, prestakuntza eta eguneratze profesionalaren jardueretan, batez-bestekoaren \geq %60a. da.	
5.2.3.	Prestakuntza eta eguneratze jarduerak, eragin positiboa daukate ikasleen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan.	

5.2.4. Irakasleen lana hiru urtero ebaluatzen da.

5.2.5. Irakasleen lanaren ebaluazioak eragin positiboa du irakaskuntzan.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
5.2.1.							
5.2.2.							
5.2.3.							
5.2.4.							
5.2.5.							

5.3. IKASLEEN IKASKETA EMAITZAK Estandarra.

Ikasleen gehiengoak **ikasketa eraitza pozgarriak** lortzen ditu. Horren isla, gutxienerako helburu eta edukien lorpenean, ziklo/etapa amaierako **kalifikazio onetan** eta **kanpo frogetan** egiaztatutako eraitza positiboetan nabarmentzen da.

5.3.1. Haur eta Lehen Hezkuntzetako ikasleriaren %85ak, gutxienez, eta Bigarren Hezkuntzakoaren %75ak, gutxienez, aurreikusitako gutxienerako helburuak lortzen dituzte ziklo/etapa amaieran.

5.3.2. Haur eta Lehen Hezkuntzetako ikasleriaren %85ak, gutxienez, eta Bigarren Hezkuntzakoaren %60ak, gutxienez, kalifikazio onak (arlotuak gaituzte) lortzen dituzte ziklo/etapa amaieran.

5.3.3. Ikasleek eraitza onak lortzen dituzte kanpo frogetan. Kanpo frogetako partaidetza tasa, $\geq 0,75$, hots, aurrez aurre den ikasle kopurua eta ikasturtean matrikulatutako ikasle kopuruaren arteko ratioa izango da. Arrakasta tasa, $\geq 0,85$, hots, gaituzte duen ikasle kopurua eta kanpo frogetara aurrez aurre den ikasle kopuruaren arteko ratioa.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
5.3.1.							
5.3.2.							
5.3.3.							

5.4. IRAKASKUNTZA-IRAKASKUNTZA PROZESUAREKIN SATISFAZIOA Estandarra.

Familiak, ikasleak eta irakasleak, **satisfazio** maila onargarria erakusten dute bizitzen duten irakaskuntza-irakaskuntza prozesuarekin.

5.4.1. Familien %50ak, gutxienez, pozik dagoela euren seme-alabek bizi duten irakaskuntza-irakaskuntza prozesuarekin egiaztatzen du.

5.4.2. Ikasleriaren %60ak, gutxienez, pozik dagoela bizi duten irakaskuntza-irakaskuntza prozesuarekin egiaztatzen du.

5.4.3. Irakasleriaren %75ak, gutxienez, pozik dagoela tutoretza ekintzarekin, egiaztatzen du.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
5.4.1.							
5.4.2.							
5.4.3.							

VI. EREMUA

FAMILIA ETA INGURUA

Eremu hau, ikastetxeak **familiekin** eta **inguruarekin** (Administrazioa, hezkuntza elkarteak, udaletxea, irakasleentzako laguntza eta prestakuntza zentroak, gobernuz kanpoko erakundeak, gizarte erakundeak, hornitzaileak, etab...) dituen **harremanetan** oinarritzen da. Era berean, ikastetxeak garatzen dituen **eskolaz kanpoko ekintza** eta **ekintza osagarriak** ere aintzat hartzen ditu.

6.1. FAMILIEKIN HARREMANA-INPLIKAZIOA Estandarra.

Ikastetxeak **komunikazio** bideak ezartzen ditu familiekin ikasleen bilakaeraren jarraipenerako. Era berean, ikastetxearen bizitzan **gurasoen partaidetza** bultzatzen du, **satisfazio** maila onargarriaz.

6.1.1.	Ikastetxeak komunikazio bide formalak ezartzen ditu familiekin.	
6.1.2.	Urtero jarduerak programatzen dira ikastetxeko bizitzan familien partaidetza sustatzeko.	
6.1.3.	Familien partehartzea dagozkion jardueretan $\geq 45\%$ da, jardueretan batez-besteko haztatua erabiliko delarik	
6.1.4.	Familien %50ak, gutxienez, pozik dagoela ikastetxearekin dituen harremanarekin egiaztatzen du..	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
6.1.1.							
6.1.2.							
6.1.3.							
6.1.4.							

6.2. ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK ETA EKINTZA OSAGARRIAK

Ikastetxeak eskolaz **kanpoko ekintzak** eta **ekintza osagarriak** programatzen ditu inplikatu guztien satisfazio maila onargarriarekin.

6.2.1.	Programatutako ekintza osagarriak curriculumarekin bat datoz, hots, koherenteak dira.	
6.2.2.	Ekintza osagarriak programatutakoaren arabera burutzen dira.	
6.2.3.	Urtero eskolaz kanpoko ekintzak programatzen dira.	
6.2.4.	Ikasleen partaidetza maila eskolaz kanpoko ekintzetan onargarria da.	
6.2.5.	Ikasleriaren %60ak, gutxienez, pozik dagoela eskolaz kanpoko ekintzekin egiaztatzen du.	
6.2.6.	Arduradunen %75ak, gutxienez, pozik dagoela eskolaz kanpoko ekintzekin egiaztatzen du.	
6.2.7.	Familien %50ak, gutxienez, pozik dagoela eskolaz kanpoko ekintzekin egiaztatzen du.	
6.2.8.	Ikasleriaren %60ak, gutxienez, pozik dagoela ekintza osagarriekin egiaztatzen du.	
6.2.9.	Arduradunen %75ak, gutxienez, pozik dagoela ekintza osagarriekin egiaztatzen du.	
6.2.10	Familien %50ak, gutxienez, pozik dagoela ekintza osagarriekin egiaztatzen du.	

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
6.2.1.							
6.2.2.							
6.2.3.							
6.2.4.							
6.2.5.							
6.2.6.							
6.2.7.							
6.2.8.							
6.2.9.							
6.2.10.							

6.3. INGURUAREKIN HARREMANA Estandarra.

Ikastetxeak bere inguruarekin **elkarrekintza loturak** ezarri eta programatzen ditu. Komunitateari zerbitzu bat eskaini eta,aldi berean, azken horren baliabideez zuzkitzeko.

6.3.1. Ikastetxeak urtero, inguruko beste erakundeekin lankidetzak jarduerak programatzen ditu. Programak honek, ondoko atalak jasoko ditu gutxienez:

Lankidetzaren helburuak, Jarduerak, Ebaluazio irizpideak

6.3.2. Ikastetxea inguruaren errekurtsoez baliatzen da bere xedeen lorpena bultzatzeko

6.3.3. Ingurua ikastetxearen baliabideez probesten da komunitatearen onerako.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emitza globala	Emitza adostua
6.3.1.							
6.3.2.							
6.3.3.							

VII. EREMUA

ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUEN KUDEAKETA

Azken eremu honek, ikastetxeak eskainitako **zerbitzuak**, esaterako: jangela, garraioa, eskolaz kanpoko jarduerak eta bestelako zerbitzuak eta, halaber, pertsonalaren selekzio prozesuak arautzen dituen **profil profesionalen** definizioa barneratzen ditu. Aldi beran, **Ikastetxearen Plan Finantziar-Ekonomikoa (IPFE)** eta **Urteko Plangintza Ekonomikoaren (UPE)** bitartez zehazten den gestio finantziar - ekonomikoa jasotzen ditu bere baitan.

7.1. ADMINISTRAZIOA eta ZERBITZUAK Estandarra.

Ikastetxeak eskainitako **zerbitzuak** planifikaturik daude eta inplikatu guztien **satisfazio** maila onargarriarekin gauzaten dira.

7.1.1. Ikastetxeko zerbitzuak planifikatu egiten dira.

7.1.2. Familien %50ak, ikasleriaren %60ak eta irakasleriaren %75ak, gutxienez, hiru kasutan, pozik daudela ikastetxeak eskaintzen dizkien zerbitzuekin, egiaztatzen dute.

7.1.3. Arduradunen %75ak, gutxienez, pozik dagoela ikastetxearen zerbitzu desberdinekin, egiaztatzen du.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
7.1.1.							
7.1.2.							
7.1.3.							

7.2. PROFIL PROFESIONALA Estandarra.

Administrazio eta zerbitzuetako langileriaren, irakasleen eta lagun bakarreko gobernu organoen **selekzio prozesua**, eguneraturik mantentzen den **profil profesionalaren** arabera burutzen da.

7.2.1. Administrazio eta zerbitzuetako langileriaren, irakasleriaren eta lagun bakarreko gobernu organoen profil profesionalak definitu dira.

7.2.2. Pertsonalaren selekzio prozesuek, dagokien profil profesionalari erantzuten diete.

7.2.3. Profil profesionalak bost urtero eguneratzen dira.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Eraitza globala	Eraitza adostua
7.2.1.							
7.2.2.							
7.2.3.							

7.3. IKASTETXEAREN PLAN FINANTZIAR-EKONOMIKOA (IPFE)

Epe luze, ertain eta laburrerako kostuak IPFEaren bitartez **planifikatu** eta **kudeatzen** dira. Plan hori, Erakundearen Planteamenduekin **koherentea** da, dagokion gobernu organoak **aprobaturik** dauka eta sistematikoki **eguneratzen** da.

- 7.3.1.** Epe luze, ertain eta laburrerako kostuak IPFEan planifikatzen dira. IPFEak ondoko atalak izango ditu: *Finantza egoera orriak, Galera eta irabazien kontuaren analisisa, Bideragarritasuna, autofinantziazioa eta hazkundera, Planifikazio prozesua, Jarraipena eta kontrola, Zerbitzu guztien kudeaketa ekonomikoa, Kontabilitatea eta gestio ekonomiko-finantzieroa.*
- 7.3.2.** IPFEan planifikatutako kostuak, Erakundearen Planteamenduekin koherenteak dira.
- 7.3.3.** IPFEa dagokion gobernu organoak aprobatu du.
- 7.3.4.** Epe luze, ertain eta laburrerako kostuak IPFEaren bitartez kudeatzen dira.
- 7.3.5.** Bost urtero, IPFEaren eguneratze prozesua burutzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
7.3.1.							
7.3.2.							
7.3.3.							
7.3.4.							
7.3.5.							

7.4. URTEKO PLANGINTZA EKONOMIKOA (UPE) Estandarra.

IPFEan aurreikusitako kostuen aurrekontua eta garapena, eta ikastetxearen ohizko zein aparteko gastuen **kudeaketa, Urteko Plangintza Ekonomikoaren (UPE)** bitartez burutzen da. Plan hori, dagokion gobernu organoak **aprobaten** du eta sistematikoki **ebaluatzen** da.

- 7.4.1.** IPFEan aurreikusitako kostuen aurrekontua eta garapena, eta ikastetxean ohizko zein aparteko gastuen kudeaketa UPEaren bitartez burutzen da.
- 7.4.2.** UPEa dagokion gobernu organoak aprobatu du
- 7.4.3.** UPEa urtero ebaluatzen da.

Adierazleak	Ebaluazio taldeko kideen balorazioa					Emaidza globala	Emaidza adostua
7.4.1.							
7.4.2.							
7.4.3.							

AUTOEBALUAZIO TAULA

Jarraian, datuak biltzea eta lehentasunak ezartzea erraztuko duten bi tresna aurkezten dira.

IKASTETXEA.....

Data

EREMUA..... Adierazle zenb.

ARLO SENDOAK	ERAKUSGARRIAK

HOBETU BEHARREKO ARLOAK	ARRAZOIBIDEAK

AUTOEBALUAZIO TAULA

Jarraian, datuak biltzea eta lehentasunak ezartzea erraztuko duten bi tresna aurkezten dira.

IKASTETXEA.....

Data

EREMUA..... Adierazle zenb.

ARLO SENDOAK	ERAKUSGARRIAK

HOBETU BEHARREKO ARLOAK	ARRAZOIBIDEAK